

PSIKOMOTRIZITATE ERLAZIONALA: AUKERA BERDINTASUNERAKO eta EMOZIOEN HEZKUNTZA

HIK HASI 2019-2020 IKASTURTEA



KUTTUN AHOLKULARITZA PSIKOPEDAGOGIKOA

AURKIBIDEA

1. HOMOLOGAZIO ESKAERA.....	3
2. JARDUERAREN DATUAK	4
3. JUSTIFIKAZIOA	5
3.1. PSIKOMOTRIZITATE ERLAZIONALA.....	5
3.1.1 <i>Haurrari segurtasun fisiko eta afektiboa eskainiko dion espazioa</i>	6
3.1.2 <i>Jolas librearen garrantzia haurraren garapen integrala bideratzeko</i>	6
3.2 HEZKUNTZA EMOZIONALA	8
3.3 GENERO BERDINTASUNA	9
4. PROGRAMA	10
4.1 Helburuak, Konpetentziak eta Ikaskuntza Emaitzak.....	11
4.2 METODOLOGIA.....	13
4.2.1 <i>Arlo teorikoa</i>	13
4.2.2 <i>Hurrekin eginiko saioen segipena</i>	13
4.2.3 <i>Bizipenen saioak</i>	14
4.3 GAIAK	15
4.4 EGUTEGIA	17
4.5 KRONOGRAMA	17
4.7 BIBLIOGRAFIA	19

2. Eranskina

1. HOMOLOGAZIO ESKAERA

Maria Pilar Urresti Ortiz andereak, 20302 posta kodea duen Iruneko Legia kaleko 8 zenbakiko Galerias Bellas Artes-eko lokalean helbide soziala, 6057704837 telefonoa eta kuttun.kuttun@gmail.com maila duen **KUTTUN AHOLKULARITZA PSIKOPEDAGOGIKOA** (NAN 15254283Q) partaidea delarik

Izenburua	Herria eta Lurraldea	Ikastaro mota
Psikomotrizitate Erlazionala: Aukera Berdintasunerako eta Emozioen Hezkuntza	Irun Gipuzkoa	Formakuntza

Donostian, 2019ko apirilaren 15a

Erantsi beharreko dokumentazioa:

- NAN fotokopia
- Jardueraren datuak, 3. eranskinak agindutakoaren arabera

3. Eranskina

2. JARDUERAREN DATUAK

Izenburua: **Harreman psikomotrizitatea, Emozio eta Aukera Berdintasunerako Hezkuntza** ikastaroa

Zuzendaria: MARIA PILAR URRESTI ORTIZ

Hasiera data: 2019/09/27 Bukaera data: 2019/06/6

Partehartzaile bakoitzak formazioan guztira jasoko dituen ordu kopurua: 125.

Horietariko %100 euskaraz;

Plazak: 15

Ikastaroa emango den lekua:

KUTTUN AHOLKULARITZA PSIKOPEDAGOGIKOA

Legia kalea 8.

Galeria Bellas Artes 8.lokala

IRUN (Gipuzkoa)

Ikastaroaren koordinatzailea:

NAN	1. Abizena	2. Abizena	Izena	Egoera	Ordu kopurua
15254283Q	URRESTI	ORTIZ	M ^a PILAR	6	105

3. JUSTIFIKAZIOA

Ehun eta hogeitabost ordutako (125) formazio honetan elkarrekin txertatzen diren hiru alor teorikoak landuko ditugu: **aukera berdintasuna, emozioen hezkuntza eta psikomotrizitate erlazionala**. Hiru gai nagusi hauek marko teorikoa azaltzeko banatuko baditugu ere, gure formakuntza teorikoan momentu orotan daude elkarrekintzan.

3.1. PSIKOMOTRIZITATE ERLAZIONALA

Psikomotrizitateak joko librean du oinarria. Aktibitate honen helburu nagusia haurrak ondo pasatzea da. Haurrari jolasgune bat eskaini nahi zaio libreki, minik egin gabe, nahi duen jolasetan aritzeko. Haurra mugimendu librean, jolas librean, bere garapen integrala bideratzen du (garapen afektibo, emozional, kognitibo, motor, sozial eta morala). Bestalde, harremanak (helduarekin edota beste haurrekin) garatzeko parada ere izango du.

Haurrak arriskurik gabeko espazio batean jolastuko du libreki eta bere jokoan bere inguru familiar, eskolar eta sozialean gertatzen diren arazoak eta gatazkak islatu egingo ditu. Jolasaren bidez bere zailtasunak aterako ditu eta ahal den neurrian Psikomotrizitatearen laguntzaz gertaera hauek landu eta gaindituko ditu. Bestalde, leku askotan egin ezin dituen gauzak egiteko aukera izateak egunerokotasuneko gertaera eta betebeharretan lasaitasuna emango dio.

Psikomotrizitate gela, haurra minik eman gabe, sentitu eta nahi duena egiteko lekua da, haurrak diren bezala azaltzeko espazio librea. Beraien beharrak, nahiak, desioak ateratzeko lekua. Haur osasun orekatua bideratzen duen prebentzio tresna da, haurraren garapen afektibo emozional osasuntsua bideratzeko, etorkisunean nortasun orekatu bat bideratzen duena.

Psikomotrizitateak haurrari bere nahia eta desioarekin konektatzen lagunduko du. Haurra libre sentituz bere jolas plazerran sartu eta bere nahi edo desio kontziente eta inkonzienteak bideratuko ditu. Bere nortasuna eta kreatibitatea adierazleak ateratzen lagunduko du. Zer den eta zer nahi duen hauta dezake espazio honetan.

3.1.1 Haurrari segurtasun fisiko eta afektiboa eskainiko dion espazioa

Haurrari emozio eta desioak espazio seguruan adieraztean, bere garapen afektibo emozioala orekatua bideratuko da. Lasaitasun eta segurtasun fisikoa eta afektiboa ematen duen espazioa eskaintzen badugu, haurrak diren eran azalduko dira. Psikomotrizitateak haurrari segurtasun lekua eskaintzen dio:

- ✓ **SEGURTASUN FISIKOARI** dagokionez, inork ezin du minik hartu eta beraz, segurua den gela bat eratuko da. Psikomotrizistak gela diseinatzerakoan espazio guztia kontutan hartuko du haurrak minik har EZ dezan.
- ✓ **SEGURTASUN AFEKTIBOA** berriz, haurrari den eran azaltzeko aukera emango dion espazioa eskaini diogula esan nahi du eta ez dugula epaituko, onartu egingo dugula bera den bezalaxe. Horrela, haurrak bere desio, behar, nahiekin konektatuko du bere beharrak adieraz ditzan. Haurrak psikomotizistarekin binkulu positiboa behar du bere beharrak entzunak eta errespetatua izateko.

3.1.2 Jolas libre eta espontaneoaren garrantzia haurraren garapen integrala bideratzeko

Jolas librea haurrak bere garapen integrale bideratzeko duen tresna naturala da. Haur denek, atxikimendu segurua baldin badute, jolas eta mugitzeko joera instintiboa dute, poza eta plazerra bideratzen baidie. Jolasa librea izango da psikomotrizistarentzat tresna nagusia haurraren garapen integrala bideratzeko:

Garapen afektiboa: psikomotriziteta erlazionala haur eta helduaren harremanean eta atxikimendu terorian du oinarria.

ATXIKIMENDUA, haurrak oinarrizko beharrei erantzuten dien pertsonekin (ama, aita, irakaslea, beste familiako kideak...) egiten den lotura afektiboa da. Atxikimendua bi pertsonen artean ematen den binkulu sendoa da. Haurrarentzat atxikimendu figura segurtasun oinarria da zeinen bidez inguru fisiko eta soziala esploratzen du eta ansietatezko egoeretan, tristura edo beldurra sentitzen duenean, pertsona horren babesa eta goxotasuna bilatzen du.

Haur gehienek atxikimendu segurua dute eta ondorioz jolas librean autonomikoki arituko dira helduaren beharra dutenean soilik harengana zuzenduz. Psikomotrizistaren papara garrantzia handia du haurrari segurtasuna eman behar diolako. Bestalde zenbait hau atxikimendu segurua ez badute (psikomotrizistak adierazleak aztertuko ditu) binkulua eraiki edo sendotzea izango da lehentasuna.

Garapen motorea: haurrak atxikimendua segurua badu inguru esploratzeko

joera izango du. Esplorazioa mugimendua da eta mugimenduan bidez garapen motorea ematen da gaitasun motor anaitzak garatuz. Bere adierazpen motor plazerteroak bere burua ezagutu eta autonomia izateko bidea emango dio, bere ingurunea ezagutu eta deskubritzeko parada.

Jolas espontaneo eta libran inteligentzi zibernetikoa garatuko du naturaltasunez; oreka, latralitatea, tonua, indarra modulazioa...

Haurren garapen motoreak aldi batzuk ditu eta esan bezala helduaren interakzioaz naturaltasunez garatzen joango dira. Aldi hauek haurren erritmoa errespetatuz, behar duen denbora emanaz garatuko dira naturaltasunez. Bestalde, psikomotrizistak haurrak behatu eta entzunaz garapen motorearen adierazleak ikusi eta haurren bat sailtasuren bat badu jolasaren barnean errespetuzko iharduketa hezitzaile zehatzak bidera ditzake garapen motorean laguntzeko.

Garapean emozionala: Psikomotrizitate gela jolas librearen bidez egunerokotasunez haurrak bizi izan dituen gertaera eta emozioak ateratzeko lekua da. Emozioak ditugu gure egunerokotasunean bizirik gaudenaren seinale eta emozio guztiak ez badira atseginak ere, hauek ezin ditugu ekidin eta ondorioz, inteligenteki erabiltzen ikasi behar dugu. Beraz, haurren garapen emozionalean lagunduz, emozioak inteligenteki erabiltzen ikasteko espazioa da psikomotrizitate gela. Bide honetatik, emozioak ezagutzen, izendatzen jakin, onartzen, ulertzen eta erregulatzen ikastea oso lagungarria izango zaigu.

Garapen soziala: atxikimendu seguruatik abiatuz hurrek ingurunea behatu eta bere kideekin harrema bideratu nahi dute. Jolas libreak bizikidetza eta elkar bizitzarako estrategiak bideratzen ditu. Harremana bideratzeko norbere desioak bideratzea funtsezkoa da eta norberaren desioak entzunda, besteen lekuan ipintzen ikasiko du. Empatia eta errukia ditu (beste emozio anitzen artean) haurrak bizikidetza positiboa eraikitzeke tresna. Honetarako gatazken bizipen positiboa funtsezkoa da eta psikomotrizitate gelan, minik eman eta jaso gabeko testu inguruan, gatazken bizipen eraikitzailean hezitzeko lekua izango dugu. Gatazka bizikidetza aukeran biziz eta heziz.

Garapen morala: Minik hartu eta eman ezin den testuinguru batean, nor bere burua zainketan hezitzeko dugu eta ondorioz besteei ezin dela minik eman azaldu ere. Gure buruaren errespetutik, helduak haurra errespetatuz, besteenganako errespetuan hezitzeko parada izango dugu psikomotrizitate gelan. Psikomotrizitateak mugak argiak ipiniko ditu hurrek minik eman gabe komunikatzeko eta behar duena eskatzeko bideak eraikiz bizikidetza positiboaren bidean.

Garapen kognitiboa: psikomorizitate gelan bertan dagoena material biguna nahi duen moduan manipulatzeko aukera izango du haurrak. Manipulazio honek bere adimen kognitiboa garatzen lagunduko dio psikomotrizitatearen laguntzaz. Bestalde, adierazpen motoreak bere gorputzaren jabe eginez, garapen kognitiboa bideatzaile dugu.

Haurra garapen aldi kognitibo ezberdinak ditu bai eta inteligentzia kognitiboa garatzeko berezkotasuna. Haurra entzun eta lagunduko dugu kurisitate eta interesatik garapen logiko matematiko, linguistikoa, sormen, zibernetikoa eta sortzailea garatu dezan.

Bestalde harreta goiztiarra sustatuz psikomotrizistak adierazle zehatzak behatuko ditu lehen adinetatik egon daitezken adierazle edo sailtasunak aztertuz.

3.2 HEZKUNTZA EMOZIONALA

Garapen emozionalean alor honen garrantzia astertu badugu ere, emozioei teoria lanketa zehatza eman nahi diogu, azken finean jokaera desegoki guztiak emozioak inteligenteki bideratuz landu daitezkeelako.

Emozioa guztiak identifikatzen ikastea funtsezkoa da adimen hezionala garatzeko. Emozioak ezagutu, ulertu eta onartzea dakar erregulazio emozionala positiboa eta denak banan banan landuko ditugu haurren erregulazio positiboa bideratu asmoz; poza, beldurra, haserrea, tristura, kulpa, lotsa, harrotasuna, interesa, esperantza, enpatia, maitasuna...

Emozioen izendapena funtsezkoa dugu. Sentitzen dugunari izena jarri behar diogu. Hurrei ere txikitatik erakutsi behar zaie haiek sentitzen dutena izendatzen; hots, sentitzen dutena hitzetan ipintzen. Horrela emozio ezberdinak ezagutu eta egoera ezberdinetan izendatzen jakingo du: haserre nago! pozik nago! beldur naiz!...

Emozioen izendapenek, emozioak onartzen eta ulertzen lagunduko digute. Emoziozko sentipenak arrunt ezaugarri humanoa da; hortaz, denok sentitzen ditugula ohartu behar dugu. Hurrekin elkarrekintzan ari garelarik sentitzen dutena onartzen eta ulertzen lagundu behar diogu. Zentzu honetan, maiz maite dugun haurra babestu nahian omen, desatsegina den emozioa ukatzea eskatzen diogu ("*ez beldurtu!*" esaten diogunean adibidez) baina horrela ez diogu laguntza handirik eskaintzen. Bere emozioak ukatzean emozio horiek duten energia ez da era zuzenean bideratuko.

Bestalde, arestian apuntatu dugun bezala, emozioa sentitzea naturaltasunz bizi behar badugu ere, horrek ez du adierazi nahi edozer egiteko aukera dugula. Emozioek eragindako joera ekintzaileei mugak ipini behar baitzaizkie zenbait

egoeretan; haserretzeak ez du jotzea baimentzen, beldurra ere sentitu dezakegu baina beldur hori bideratzen ikasi behar dugu, dena ezin dugu lortu beti eta frustazioa bizitzen lagundu behar dugu...

Muga horien zehaztapenek, hain zuzen ere, emozioen joera ekintzailea bideratzen lagunduko digute, prozesu honek "erregulazio prozesu" izenarekin ezagutzen dugu. Emozioak sortzen duen energi hori guztia –bai intentsitate zein iraupenen mailan- era positibo batean bideratzen ikastea du helburu psikomotrizitate erlazionalak. Nor bere buruarekin ongi sentitu ahal izateko eta maila sozialean ere oinarrizko bizikidetzak eman ahal izateko.

Formazio honetan sentimendu eta emozio bakoitza banaka landuko ditugu gure burua hobeto ezagutzeko eta haurraren adimen emozionalean lagunduz.

3.3 GENERO BERDINTASUNA

Psikomotrizitate erlazionala genero berdintasuna bideratzeko tresna baliagarria da oso. Haurren jolasak behatuz psikomotrizistak interbentzio zehatzak egin ditzake neska eta mutilen garapena sexua kontuan hartu gabe eman dadin.

Lau puntu hauei emango diogu garrantzia:

- **Neska eta mutilen arteko genero berdintasuna** bideratu. Hezitzaileek neska edo mutilekin berdinean jokatzeko dugun ausartu eta haurren garapen integrala bideratzen saiatu. Haurrak emozionalki berdinean jaso eta garapen integrala bideratu zein sexukoa den kontuan hartu gabe, bizi aukera berdinean eskainiz.
- **Gorputz irudia:** Gorputz guztia plazer iturri dela ohartzea, pertsona osoki gara ederrak bakarrak eta errepika ezinak. Gorputzaren funtzionalitatean hezi ez itxuran.
- **Identitate edo nortasun sexuala:** (Sexu batekoa ala bestekoa zaren jakitea) Bi urte inguru dituztenean beren burua mutiko edo neskatxeren artean sailkatzen dute. Beren buruaren sailkapen honek zera adierazten du: batetik, mutikoen eta neskatxeren artean desberdintasunak ikertu nahi dituzte, bestetik, beraiek bi kategoriarik hauetako batean daudela jakin nahi dute. Beraz, hezikidetzak bideratzearen beharra. HEZKIDETZA: neska eta mutila eskubide, emozio, behar eta ahalmen berdinean dituzte. Pertsona ezaugarria dira, ez sexuenak.

Intersexualitate eta trasgeneroa landu eta adierazleak bilatuko ditugu gure lanean haur trasgenero edo intersexualak lagundu eta bide lagun izateko.

- **Genero rola.** Gizarte jakin batean gizon eta emakumeei esleitzen zaizkien zeregin edo jarduerak dira genero rola. Helduok neska edo mutila izateagatik haiekin era ezberdinez harremanak haurrari bere ahalmenak mugatzen dizkio. Pertsonaren ahalmen guztiak garatu behar ditugu, errekurtsu berdinean eta etorkizunerako aukera berdinean izan ditzan. Neska eta mutil izateko modu asko daude. Sexu bat ez da bestea baino hobetagoa. Sexu, itsura fisiko, larru kolore e.a.aren gainetik daude. Diskriminazioarik eman ez dadin

aniztasuna landu behar da. Denok gera ezberdinak eta denok ederrak bakarrak garelako, baldintzarik gabe maitatu behar dugu gure burua.

- **Genero estereotipoak.** Gizarte jakin batean gizon eta emakumeei esleitzen zaizkien ezaugarri fisikoak. Gizartetik bideratzen zaizkigu fisikoki nolakoak izan behar dugun eredu bat. Honetaz kontzientzia hartu behar du hezitzaileak eta haurra irudi anitzetan hezi. Bai familia eta haurrei edertasuna geure gorputzaren funtzionalitatean dagoela azaldu eta horretan hezi.
- **Ez beti da ez:** afirmazioaren beharra defendatzen ikasteko eta garena bezala maitatzeko. Tratu onen hezkuntza bideratzea da gure helburu.

Geure burua maitatzeko eta gure garapen afektibo-sexuala osasuntsua izateko zer maite dugun eta zer ez dugun maite azaltzen ikasi behar dugu. Garen bezalakoak baloratuak izan gure ahalmen eta zailtasunekin.

Ezetzaren aldian gaudenetik gure ezetzak entzun behar dira. Norbaitek min ematen badigu firme EZ BETI DA EZ azaldu. Haurrak identitatea lantzen duenean hasi behar du EZETZ lantzen bere lehen urtetatik.

- **Aniztasuna:** denok gera bakarrak eta errepika ezinak. Sexu aniztasun hezitzearen garrantzia bai eta sexu orientazioa heldutasunean anitza dela hezitzeak duen garrantzia landuku dugu bizikidetza positiboa eman dadin.

Prebentzioaren garrantzia, psikomotrizitate erlazionalak haurren garapen integrala eman dadin egiten duen prebentzio lana itzela da. Psikomotrizistak haurra behatuz aipatu ditugun garapen guztien adierazlean aztertuko ditu (adierazle afektibo, emoziona, motor, sozial eta morala) eta hezkun iharduketa zehatzak bideratuko ditu haurren sailtasunak lehen bait lehen detektatu eta landuak izateko.

Bestalde jokoan interbentzioak eginez txikitatik genero berdintasunean hezi daiteke. Haurrak sexua kontutan hartu gebe hezi daitezke aukera berdinetan heziz bai eta maila pertsonanean errekurtsio afektibo eta emozionalak orekatuak eskainiz. Psikomotrizitate erlazionalak txikitatik agresibitatea bideratzen erakusten du hau ez bilolentzian amaitzeko eta era positiboan erabiltzeko defentsa moduan.

4. PROGRAMA

4.1 Helburuak, Konpetentziak eta Ikaskuntza Emaitzak

Ikastaroan parte hartuko duten ikasleek (irakasle zein hezitzaile) helburu hauek barneratuko dituzte:

- Gorputzaren bidezko komunikazioak eskatzen duen errespetuzko entzute, itzarote eta laguntzeko trebetasunak eta gaitasunak eskuratzen hastea haurraren garapenaldiak (afektibo, emozional, motor, moral eta sozialak) positiboki garatzen lagunduz.
- Era berean, formakuntzan parte hartuko dutenek, haurrek egingo duten jolas librea ikustea, behatzea eta beren beharrak interpretatzen hastea.
- Horrela, haurraren garapen integrala bultzatzean genero ikuspegiaren kontzientzia hartuz psikomotrizitate jardueretan genero desberdintasunak sortzen dituzten egoerak antzeman eta berbideratzeko estrategiak garatzea.
- Haurrei psikomotrizitate gelan bizi dituzten emozioak onartu, ulertu eta erregulatzeko errekurtsoak izatea. Emozio guztien funtsio erregulatuak ezagutu eta bideratzen ikastea.

Helburu hauek ondoko konpetentzia eta Ikaskuntza emaitzetan txertaturik agertzen dira:

Arlo Teorikoan landuko diren KONPETENTZIAK	IKASKUNTZA EMAITZAK
Haurraren garapen unearen ulermenean lagunduko duten gaitasun, jarrera eta jakituria jasotzea	Haurra ulertu garapen integral moduan; garapen motor, afektibo, emozional, moral, sozial...
	Jaiotza eta hurrengo 6 urteetako garapen bidean ematen diren beharrak ulertu eta ezagutzea
	Haurraren emozioen garapen positiboan aurkitu daitezkeen zailtasunak ekiditeko lagungarri izango zaizkigun segurtasun loturak ulertu eta eraikitzen jakitea.
	Haurraren garapen afektibosexuala ulertu eta hezkidetzan bideratzeko ahalmenak hezagutzea.

Hurrekin psikomotrizitate saioetan landuko diren KONPETENTZIAK	IKASKUNTZA EMAITZAK
Harreman psikomotrizaren papera garatzen lagunduko duten gaitasun, jarrera eta jakituria jasotzea	Harreman psikomotrizitateko saioetan parte hartzearen plangintza eta horretan beharrezkoak antolakuntza, egitura eta materiala egokiro erabiltzen jakitea.
	Haurraren garapen osoan lagunduko duten giro seguru eta askeak (fisikoak nahiz emozionalak) sortzen jakitea
	Komunikazioaren bitartekariak erabiliz, komunikazioaren dimentsioa garatu.
	Haurraren garapenean lagunduko duten jarraibideak eta laguntza eta enpatiarako estrategiak jasotzea
	Interbentzio-estrategien nondik norakoak ezartzeko helburuarekin, haurren beharrak atzematea eta banakako egitasmoak diseinatzea
	Testuinguruaren araberrako eduki sinbolikoak irakurtzeko gaitasuna izatea
	Haurraren espresio emozionalean lagunduko duten pertsonaren mugak ezagutzea eta maneiatzen jakitea
	Haurrak pertsona bezala jasotzea genero berdintasuna bideratuz. Iharduketa zehatzak bideratzeko ahalmena izatea berdintasuna sustatuz.

BIZIPEN SAIOETAN LANDUTAKO KONPETENTZIAK	IKASKUNTZA EMAITZAK
Haurraren garapenean lagunduko duen harreman psikomotrizeko profesionalaren hazkuntza pertsonalean lagunduko duten gaitasun, jarrera eta jakituria jasotzea	Norberaren historia psiko-emozionala ezagutzea eta garatzea.
	Harreman psikomotrizitateko saioetan atera litezkeen eduki emozionalak ulertzea, onartzea eta bideratzeko gaitasunak jasotzea.
	Entzumen-, zaintza-, frustrazio-, errespetu- eta enpatia-jarrerak atzematea eta ulertzea
	Jolasetatik eratorritako esanahi eta sinbologia identifikatzea
	Gure gorputzetik ateratzen diren gaitasun eta baliabideak –tonua, ukimena, kontaktua, begirada, ahotsa...- identifikatzea eta horien kontzientzia hartzea

4.2 METODOLOGIA

Psikomotrizitatean erlazionalean uztatzen diren beste hiru oinarrizko arloetan antolatuta dago formakuntza: arlo teorikoa, hurrekin psikomotrizitate saioen segipena eta azkenik bizipen saioen arloa.

4.2.1 Arlo teorikoa

Formazio marko terikoan aipatutako edukiak landuko ditugu. Teoria landuko dugu aurrez aurreko saioetan honako bi modutan:

- Eztabaida saioak: hilabetean behin ikasle taldeak artiluku edo lan baten monografikoa irakurri eta eztabaidatuko du, aurrez aurreko saio presentzialetan.
- Zenbait ponente edo aditu gai teoriko ezberdinak landuko dituzte.

Beraz, alde teorikoa modu aktiboan eta elkarrekintzan oinarritua egingo da. Eguneroko lanean hausnarketa ahalbidetu eta inklusio giroan lagunduko diren teoria eta praktikak konbinatuz eta talde-lana bultzatuz.

Formatzaileak gai bakoitzeko laburpen bat eskainiko du, saioan zehar aipatutako guztiarekin.

4.2.2 Hurrekin eginiko saioen segipena

Ikasleek haur talde bat izango dute hurrekin psikomotrizitate praktikan sakontzeko.

Praktika saioek formatzaile-tutore baten laguntzaz garatuko dira, honelako bi modu osagarrietan:

- Praktika saioak grabatu eta aurrez aurreko saio teorikoetan aztertuko ditugu (beti ere beharrezkoak diren baimenak aldeztuz).
- Formazio-tutoreak urtean zehar lekuan lekuko bi gainbegiratze egingo ditu.

Gainbegiratze horien helburua ikaslearen lana aztertu eta baliabide berriak eskaintzea da, psikomotrizistaren garapen positiboa bultzatuz.

4.2.3 Bizipenen saioak

Formazioan dauden irakasleek haurren moduan jolasteko eraikitako espazioa eta denbora garatuko da arlo honetan. Saio hauetan sortutako harreman psikoafektiboak elkartrukatuz, bizipen horren inguruan gorputzak hartzen dituen tonu eta jarrera ezberdinen kontzientzia hartzean datza lan honek.

Irakasleek elkarrekin jolasten duten heinean, psikomotrizista formatzailearen laguntzaz, irakasleek entzuteko gaitasuna, enpatia, errespetuzko interbentzia eta zaintzarako jarrera landuko dira. Norberak barnean duen haurra birbizitzeko aukera da, norbera haurretik abiatu beste haurrak ulertzen ikasteko bidea.

Talde dinamika eta jolas librearen bidez irakasleak bera barne beharrak landuko ditu eta beste kideekin jolasean besteen beharrak ikasi eta asetzen ikasiko ditu.

Horrela hurrekin lanean ari direnean haurrak zer senti eta zein behar dituen ikusi ahal izango dugu haurraren garapen positiboa bilakatuz, haurraren garapen afektibo emozional osasuntsua bideratuz eta gerta daitezken arazoak prebenituz.

Hiru atal hauen helburua gai teorikoak, jolas bizipen pertsonala eta haur talde batean ematen den praktika profesionala elkarrekintzan nahastu egiten dira ikaslearen garapen integrala bideratzuz. Horrela, ikasle bakoitzak arlo teorikoan nahiz bizipenekin ikasitakoa praktikan jarriz bere gaitasunei lotura emango die. Horrela, praktika bera teoriarekin uztartzearekin batera, teoria bera eraikitzen ari gara aretoko praktika profesionalari jarraiki.

DIARIO edo EGUNEROKOA izango da lan tresna nagusia, bai eta online arteko komunikazio jarraia. Tresna hau ikasleak bere formazioaren jarraipena eta ebaluaketa jarraia egiteko erabiliko da bai eta irakasle tutorearekin harremana jarraia izateko. Online bidea ere erabili ahal izango da ikasleak beharrezkoa ikusten badu.

4.3 GAIK

Gai teriokoak lantzeko aurrez aurreko 9 saio izango ditugu eta hauek izango dira landuko ditugun eduki edo gaiak.

	LANDUKO DIREN GAIK
1. MODULOA	<p>Sarrera: parte-hartzaileen nahiak eta aurreikuspenak.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Harreman psikomotrizitatea ikuspegi eta ezaugarriak: gela, materiala, psikomotrizistaren papera, mugimendua... • Jolasa motak eta jolas librearen garrantzia. <p>Kasu praktiko eta bideoenen analisia.</p>
2. MODULOA	<ul style="list-style-type: none"> • 0-8 urteko haurren garapen afektibo-emozionalaren ezaugarri nagusiak. • Kontentzio afektibo eta kontentzio agresiboaren garrantzia; anbilalentzia nola bideratu. • Psikomotrizitate saioetan aztertu beharrezko adierazle afektibo, emozional, sozial, motor eta moralak. • HAUTAKETA: noiz eta nola hautatu haurra berarekin lan egiteko beste haur guztiak kontutan hartuz (begirada periferikoa) <p>Kasu praktiko eta bideoenen analisia.</p>
3. MODULOA	<ul style="list-style-type: none"> • Jolasaren garrantzia • Jolas motak, edukiaren irakurketa • Adierazlea-esanahia. Hizkuntza analogiko-digitala • Jolas sinbolikoaren garrantzia. Nola lagundu bideratu haurren beharrak jolas sinbolikoaren bidez. <p>Ikasleen bideoen azterketa</p>
4. MODULOA	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza emozionala. Pskomotrizitatea haurren emozioen erregulazioa bideratzeko espazioa. • Emozioa nagusien funtzioa aztertu eta psikomotriztean nola islatzen den behatzea: haserrea, poza, maitasuna, nazka, beldurra, esperantza, interesa eta tristura. • Hezkuntza emozionala. Pskomotrizitatea haurren emozioen erregulazioa bideratzeko espazioa. • Emozioa nagusien funtzioa aztertu eta psikomotriztean nola islatzen den behatzea: FRUSTRAZIOA.

	Ikasleen bideoen azterketa
5. MODULOA	<ul style="list-style-type: none"> • Garapen afektibo sexuala: atxikimendua, lehen hilabetetan jana eta loaren errespetuz egitearen garrantzia. • Garapen afektibo sexuala: estinterren erregulazio naturala. • Nola eta noiz ipini mugak haurrei. ERREFERENTZI argiak ematearen garrantzia. <p>Ikasleen bideoen azterketa</p>
6. MODULOA	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza emozionala. Pskomotrizitatea haurren emozioen erregulazioa bideratzeko espazioa. • Emozioa nagusien funtzioa aztertu eta psikomotriztean nola islatzen den behatzea: lotsa, harrotasuna, culpa, jelsia, inbidia, enpatia <p>Kasu praktiko eta bideoenen analisia.</p>
7. MODULOA	<ul style="list-style-type: none"> • Epaiketa moraletan sartu gabe psikomotrizitate saioetan haur bakoitzaren garapen pertsonal eta integrala bideratuz nola bideratu haurren arteko gatazkak? • Zein esku hartzea egin behar du psikomotrizista batek? • Nola sustatu bizikidetzaren positiboa? Disziplina positiboaren garrantzia. • <p>Kasu praktiko eta bideoenen analisia.</p> <p>Formazioaren ebaluaketa eta datorren hilabeterako talde lanaren zehaztapena. Hobekuntza diseinua.</p>
8. MODULOA	<ul style="list-style-type: none"> • Neska eta mutilen arteko genero berdintasuna bideratu. Hezitzaileek neska edo mutilekin berdinean jokatzeko dugun hausnartu eta haurren garapen integrala bideratzen saiatu. Haurrak emozionalki berdinean jaso eta berdintasun garapen bideratu. • Gorputzaren bizipena, etapa ezberdinak, genero identitatea, genero estereotipoak, aniztasuna eta genero berdintasuna. • Harreman psikomotrizitatea baterako hezkidetzaren garatzeko tresna <p>Kasu praktiko eta bideoenen analisia.</p>

9. MODULOA	<ul style="list-style-type: none"> • Formaizoaren laburpen teorikoa osatu eta irastetxetan zein gurasoekin aurkezteko behar den formatoa osatu. • Guraso eta irakasleekin bilerak egiteko behar diren ezaguarrak aztertu eta formatu teorikoa landu. • Ebaluaketa orokorra
-------------------	---

4.4 EGUTEGIA

Formazioa 125 orduz osatua dago, zeinetan 100 ordu aurrez aurreko saio teorikoak diren. Bestalde urte amaieran eta bideoak aztertuz egin behar den lanareko beste 25 ordu erabiliko dira. Guztira 125 orduko formazio izango delarik. Haurrekin ikastetxean egin behar diren lan orduak ez dira formazioaren barnean sartzen.

ORDU KOPURUA	LAN MOTA	ORDU KOPURUA GUZTIRA
Emango diren ordu teorikoak	Aurrez aurreko ordu teoriko praktikoa	70 ordu
	Lan pertsonala egiteko orduak; lanak, liburu eta artikuluen irakurketa, ikasturte amaierako lana.	25 ordu
Aurrez aurreko saio praktikoa	Bizipen saioak: 6 orduko 5 egun	30 Ordu
	PRAKTIKA PROFESIONALA ikastetxeetan: Ikasle bakoitzak bere praktika egin beharko du bere haur taldean asteko ordu betez	Derrigorrezkoa

4.5 KRONOGRAMA

ZEREGINA	DATA eta ORDUA
Saio teoriko guztietara joatea.	Hilabete bi ostiral. Ostirala: 5etatik 9etara.
Bizipen saio guztietara joatea.	Hilabetan larunbata bat. 9:30etataik 13:30etara. 15:00etatik 17:00etara.

Hurrekin egiten diran saioen lekuan lekuko behaketa	Otsailatik ekaina bitarte
Hurrekin egindako saio baten zati bat grabatuta eta landuta eramatea saio teroikoetara	Bi hilabeteetan behin
Ikasturtean zehar hilabetez hilabete artikulua edo bideo hausnarketa bat egitea. Ikasturte erdian eta amaieran, norbere interes eta desioatik abiatuta, lan edo proiektu bat sortzea.	Hilabetero lan edo proiektu labur bat. Ikasturte erdian eta amaieran proiektua pertsonala.

4.6 FORMAZIOAREN EBALUAZIOA

Azterketa jarraikakoa da eta ikasle bakoitza pertsonalki jarraitzen du. Aipatu gaitasunetara iristeko honako lan edo erreflexio pertsonalak eskatuko dira:

EBALUAZIO MODUA	EBALUAZIO TRESNAK
EBALUAZIO TEORIKOA	<ol style="list-style-type: none"> 1. Modulu bakoitzaren gaien bukaeran: autoebaluazio-galdetegia 2. Eskola urtea amaitzean: autoebaluazio-galdetegia 3. Formazioaren bukaeran: ikasleak amaierako lan aurkeztu egingo du. 4. Asistentzia obligaziozkoa izango da eta baloratuko da.
HAURREKIN EGINDAKO SAIOEN ETA BIZIPEN SAIOEN EBALUAKETA	<ol style="list-style-type: none"> 1. Formazio urtea amaitzean: autoebaluazio-galdetegia 2. Ikasturte amaieran banakako elkarrizketa egingo da
BIZIPEN SAIOEN EBALUAKETA	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ikasleak haur taldean bete duen praktikaren aurrez aurreko bi ikuskapen. 2. Ikasle bakoitzak, bideoan grabatuko dituen sesioei buruzko azterketen inguruko 4 banakako lan egin beharko ditu

4.7 BIBLIOGRAFIA

- A. Lapierre (1985). **El adulto frente al niño de 0 a 3 años**. Científico-médica
- A. Laperre y Acouturier (1997). **Simbología del movimiento**, Barcelona, Científico Médica
- A. Lapierre (1997). **Psicoanálisis y análisis corporal de la relación**. Desclée.
- A. Lapierre , B. Aucouturier (1980). **El cuerpo y el inconsciente**. Científico-médica.
- M. Llorca, V. Ramos, J. Sánchez, A. Vega (2002). **La práctica psicomotriz**. Aljibe.
- H. Wallon (1978). **Del acto al pensamiento**. Psique.
- René A. Spitz (1993). **El primer año de la vida del niño**. Aguilar
- Bowlby (1995). **Una base segura; Aplicaciones clínicas de una teoría del apego**. Paidós. Psicología Profunda.
- D.W. Winnicot (2008). **Realidad y juego**. Gedisa
- Maria Montero-Rios (2003). **Saltando las olas**. OB STARE
- Yolanda González (2010). **Amar sin miedo a malcriar**. Integral
- V. da Fonseca (1988). **Ontogénesis de la motricidad**. Colección Textos Fundamentales
- Mariela Michelena (2009). **Un año para toda la vida**. Temas de hoy
- Daniel Goleman (1996). **Inteligencia emocional**. Kairos
- Daniel Goleman (1996). **Inteligencia social**. Kairos
- Maurice J. Elias, Steven E. Jobias, Brian S. Friedlander (2011) **Educación con inteligencia emocional** AAVV bolsillo
- Marta Gimenez Dalí. **Pensando las emociones** (2013) AAVV bolsillo
- López, F., Fuentes, M.J., Etxebarria, I. Y Ortiz, M.J. (1999) **Desarrollo afectivo y social**. Madrid: Pirámide.
- Marshall Rosenberg (2010) **Comunicación no violenta . Aldea**
- Nuria Franch (2018) **Poética corporal: Psicomotricidad: cuerpo en movimiento, cuerpo en relación**. Ed: Octaedro